



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Politika telesail formatuan

Borgen

NETFLIX

Ahaztu Danimarkatik datorre-
la, politikaren munduan barne-
ratuko gaituela eta atal bakoi-
tzak ordubeteko iraupena
duela. “Borgen” boterea, ustel-
keria, zintzotasuna, familia, gi-
zartea eta kazetaritza uztartzen
dituen hausnarketarik biribile-
na eta zorrotzeta izan liteke;
eta, batez ere, entretenigarrie-
na. Danimarkako lehen minis-
tro izateko Birgitte Nyborg poli-
tikariak egunero egin behar
duen lana eta sakrifizioa era-
kusten dizkigu telesail honek.
Baita helburu horrek bere bizi-
tza pertsonalean izango duen
eragina ere. Nyborg ez da ohiko
politikaria, ordea. Lehen minis-
tro izateko bidean da, baina be-
re integritateari eutsiz, idealak
errespetatuz eta herriaren inte-
resen alde borrokatuz.

Gidoi bikaina eta dotorea, to-
nu didaktiko eta sakona duena.
Aktore guztiak ere nabarmen-
tzeak, baina, batez ere, prota-
gonistarena egiten duen Sidse
Babett Knudsen azpimarratuko
nuke. Bere pertsonaia gutako

Askok diote, sorreratik izan dela zinema «gauza politi-
ko bat». Oso zaila da hala ez izatea; ikuspuntu jakin bat
duen film bat nola izan liteke ez-politiko? Kamera non
ipini, plano jakin horren barruan zer erakutsi eta zer ez
erabakitzen ari garen momentuan, gure ikuspuntua
itsasten ari gara. Batzuetan inkontzienteki agian,
baina baita gure ideologia politikoa ere. Gaurkoan
ordea, ez dut hortaz aritu nahi. Pantaila txikiak, politi-
karen mundua nola irudikatu duen aztertu nahi dut,
eta ez zuzendari konkretu horren atzean dagoen pen-
tsaera politikoa. Politikaren zoko zoragarri, baina era
berean aspergarri eta ustel horiek guztiak telesail for-
matuan jorratu dituzten izenburu interesgarri hauek
gomendatzera nator.

edonoren pare jartzeko duen
gaitasunak bere familiaren ere-
mu pribatuan sartzeko aukera
ematen digu. Politikariekiko
dugun irudi hotz eta eskurae-
zin hori guztiz apurtu eta per-
tsona arrunt baten mailan jar-
tzen du. Noski, politikaren
lehen lerroan kokatzeak hain-
bat momentutan eskuetatik al-
de egingo dion garapen pertso-
nal eta profesionalera
eramango du. Oro har, emaku-
mearen irudia eta eginkizunak
oso modu interesgarrian aur-
kezten ditu telesailak, topikoak
eraitsiz eta estereotipoetara jo

gabe. Erritmo biziko trama du,
eta sastatzeko moduko elka-
rrietzeta zorrotz eta burutsuak.
Beldurak eta nagitasuna gai-
netik kendu eta emaziozue au-
kera bat, ez zarete damutuko
eta.

Ráðherann

AMC Networks International

“Trapped” telesail gomendaga-
rrian erakutsi zigun jada Olafur
Darri Olafsson aktore bikainak
zer-nolako maila duen, eta
ekoizpen paregabe honetan ere

hala frogatu du. Benedikt Rik-
hardsson Islandiako lehen mi-
nistroa gorpuzten du kasu ho-
netan, bere osasun mentalaren
okertzea dela-eta gobernuaren
egonkortasuna eta bere inguru-
koen bizitzak mehatxupean ja-
rriko dituen politikaria. Islan-
diako mekanismo politiko
guztiak ezagutzeko aukera ema-
ten digun telesaila da, baina ba-
tere konbentzionala ez den le-
hen ministro baten
ikuspuntutik. Pertsonaiaren ga-
rapena era oso interesgarrian
azaldua dago, niri pertsonalki
gehien gustatu zaidan alorra.

Islandiako RÚV katean es-
treinatu zenean, bere lehen
atalak %41,1eko *rating* eta
%94,4ko *share* ikaragarriak
lortu zituen.


Baron Noir

HBO

Errebanntza sozialeko egarri eu-
tsiezinak bultzatuta Philippe
Rickwaert (Kad Merad) Fran-
tziako Alderdi Sozialistako Nor-
deko alkateordearen epopeia
politiko eta judizialaren kroni-

ka azaltzen duen telesaila.
Ekoizpenak, politikako hodi ilu-
nenak zeharkatzen ditu: trai-
zioak, manipulazioa, botoak
erostea, mendekuak eta ustel-
keria, besteak beste. “Baron
Noir”-en zerbaitek harrapatzen
badu, desengainu orokorrare-
kin lotzen den gaurkotasan po-
litikoaren erretratu hiperrealis-
ta da. Fikzioan azaltzen diren
siglak zure inguruan dauzka-
zun benetako alderdi politikoe-
kin ordezkatu, eta ziur antzeko
zerbait ikusiko duzula. Aipatu-
riko Rickwaert, boterearen ero-
tikak horditutako pertsonaia
magnetiko bat da, maila ebolu-
tibo politikoaren gorenean ego-
tearekin itsututa bizi dena, au-
rrean nor dagoen axola gabe.
Erraza da atal batzuetan arrazoi
ekonomikoa ia bigarren maila-
koa dela antzematea, jatorri
nahiko apaletik etorri arren, eta
inplikazio emozionalak, ordea,
harri txiki bat besterik ez dira
bidean eta ez diote arretarik
kentzen haren benetako helbu-
ruari, botereari, alegia.

Politika maite dutenei goza-
men berezia eragingo dien
arren, ikusle orokorrari ere gus-



tatuko zaio, azken batean, ondo egindako thriller politiko bat baita.

The West Wing

AMAZON

Urrezko hiru globo, 27 Emmy sari eta nazioarteko sari ugari. Politikaz mintzo bagara, historiako telesail onenen zerrenda ugaritan azaltzen den “The West Wing” telesaila aipatzea derrigorrezkoa da. Joshua Bartlett presidente demokrataren egunerokoa erakusten digu, ekonomialari katolikoa eta pentsaera liberalekoa, bere kolaboratzaile leialekin batera AEBetako kudeaketari aurre egin beharko diona.

Aaron Sorkin sortzailea aipatzea ere ezinbestekoa iruditzen zait telesail honen muina ulertzeko. Elkarrietzeta ugari bezain zorrotzetan oinarritzen baititu bere gidoiak, iraupen luzeko *travelling*-ekin osatuak askotan. Gainera, pertsonaia askok parte hartzen dute eszena berean, horrek dakarren guztiarekin: denbora tarte laburrean pertsonaia asko, oinez eta etenik gabe hitz egiten duten bitartean. Ohartarazten dut, beraz, agian ez dela publiko guztientzat. Oso konplexua da. Oso azkarra da. Oso ondo pentsatutako gidoia du, amerikar politikaz gainezka eta esaldi gogoangarri betea. Beren

keinuetan, begiradetan, esku hartzeetan definitzen diren pertsonaiak, guztiak iheskorak. Karismatikoa da eta batez ere, onerako zein txarrerako, oso amerikarra da.

Parlement

FILMIN

Europako Parlamentuak zertarako balio duen ez badakizu, hauxe da zure telesaila. «Euro-eszeptikoentzat satira desegokia», dio telesailaren leloak. Samy Frantziako parlamentari laguntzaile gaztea da kontakizunaren protagonista nagusia, eta ahalik eta unerik txarrean hasiko da lanean: Brexitaren erreferenduma egin eta aste gutxira. Europako Parlamentua izaki erraldoi, nahasi eta burokratiko moduan aurkezten du telesailak hasieratik. Europako herritar askok ez dute ondo ulertzen Erkidegoko erakundearen funtzionamendua, eta horrek instintiboki enpatia sentiarazten digu Samy protagonistarekiko.

Telesailak hobekien funtzionatzen duenean, satiraren berezko esentzia horretan guztiz murgiltzen denean da eta ageri diren pertsonaien erradiografia umorearen bidez azaleratzen duenean. Legebiltzarkideak ezgai edo pertsona makiaveliko gisa islatzen dituen adibidez, aparta iruditu zait.



The Plot Against America

HBO

David Simonek –“The Wire” telesailaren sortzaileak, besteak beste– Philip Rothen eleberri profetikoa egokitu du, demagogoa arrazista baten eskuetan geratu diren Estatu Batuei buruz

ko erradiografia oso pertsonala egiteko. Istorioa 40ko hamarkadaren hasieran garatzen den arren, Bigarren Mundu Gerra bete-betean, egia esan, bere ideiak eta premisak oso garaikideak iruditu zaizkit eta jarrera politiko argia dute. Eleberri profetikoa nahita aipatu dut, “Heroi nazionalaren” zatia kenduz gero, Donald Trumpi buruz

hitz egin genezakeelako, adibidez. Simonek, bere telesail guztietan egin ohi duen bezala, hemen ere justizia sozialeko premiazko ideia hori islatu nahi izan du; ikusleak paralelismo horiez ohartzea nahi du eta orainaldia iraganaren bertsio honen bidez ikustea.

Vota Juan

AMAZON/ HBO/ MOVISTAR

Umorearen bideak jorratzea ere ezinbestekoa da politika aztertzerako orduan eta zer hobetik izenburu hori baino. “Vota Juan” telesail zoragarri eta oso dibertigarria da eta kito. “Ver-güenza” telesailaren umore deserosoa maite baduzu –hala izatea espero dut!–, “Veep” telesailarekin barre egiten baduzu eta “House of Cards”-en bertsio espainiarra ikusteko gogoz bazabiltza, baina Kevin Spaceyren pertsonaia Javier Camarak maituki gorpuzten duen protagonista trakets, gezurti, oportunist eta baldar batekin ordezkatuta, hau da zure telesaila. Zein ongi pasatzen dudan ekoizpen honekin eta zein gustura eta erraz ikusten den. Negatibotasunak guztia inbaditzen duen garaiotan, derrigorrezkoa izan beharko luke horrelako proposamenak ikustea. Espainiar politikarien kaskarkeria islatzen duen umorezko ezinbesteko telesaila.

